



G. Albizu



## TXAKURKUME BATI



Doinua:

*Urxo zuri polit bat  
Kantatzera niazu II  
Zortziko txikia (7/6 silaba)*

Albizu bertsolariak txakurra galdu zuen eta, bilatzeko, bertso sorta hau jarri zuen "Bertsolariya" aldizkarian. Begira hitzez nola marraztu zuen bere txakurkumea!

Txakur bat galdu zaigu  
izena du "Lagun"  
beran bilaka nabil  
ni gau eta egun  
aztarrenikan ezin  
atera det inun  
ez dakit hura gabe  
zer egingo degun

Bildurturikan egin  
lezaken kalteaz  
lotuta edukitzen  
genuen kateaz.  
Ahal zenik ondoena  
sabela beteaz,  
ez geunden asperturik  
jaten emateaz

Mutur zabala, nabar  
beso-hankak gorrik  
isatsa kendua ta  
moztuak belarrik  
narruzko jantzi beltza  
bi begiak argik  
letaginak okerrak  
ditu ezaugarrik

Zortzi egun baditu  
etxetik galduta  
honezkero jarri da  
goseak ahulduta  
beretzat jaso dunak  
zarpatik helduta  
mesedez ekartzala  
jabea baduta



## FERNANDO AMEZKETARRA



Fernando  
Amezketarra

Hara hemen Fernando Amezketarraren marrazki bizidunei hasiera ematen dien bertsoa. Ederki deskribatzen digu pertsonaia!

Buru ederra ez nekatzeko  
pauso txikiko bi zango  
halere inon festarik bada  
ez naiz azkena izango  
aurea hartu nahi badidazu  
nekatuko zara frango  
birigarrorik berritxuena  
Amezketako Fernando



Doinua:

*Gure herriko bikariuak  
Zortziko handia (10/8 silaba)*



## ZORTZIKO TXIKIA ETA ZORTZIKO HANDIA

*Txakurkume bati izeneko sorta zortziko txikian egina dago.*

*Fernando Amezketarrari buruzko bertsoa, berriz, zortziko handikoa da.*

Txakur bat galdu zaigu  
izena du "Lagun"  
beran bilaka nabil  
ni gau eta egun  
aztarrenikan ezin  
atera det inun  
ez dakit hura gabe  
zer egingo degun

Buru ederra ez nekatzeko  
pauso txikiko bi zango  
halere inon festarik bada  
ez naiz azkena izango  
aurea hartu nahi badidazu  
nekatuko zara frango  
birigarrorik berritxuena  
Amezketako Fernando



Biak dira **zortzikoak**. Beraz...

Zenbat puntu dituzte bi bertsoek?

\_\_\_\_\_

Zenbat oin dituzte bi bertsoek?

\_\_\_\_\_

Eta zergatik ote du izena neurri honek **zortzikoa? zortzi zer** dituzte bi bertsoek?  
zortzikoak 8 \_\_\_\_\_ ditu.



Baina bata **zortziko txikia** da, eta bestea **zortziko handia**.

- Zortziko txikiak zenbat silaba ditu puntu bakoitzean?

Txakur bat galdu zaigu  
izena du **Lagun**

( \_\_\_\_\_ silaba)

( \_\_\_\_\_ silaba)

- Zortziko handiak zenbat silaba ditu puntu bakoitzean?

Buru ederra ez nekatzeko  
pauso txikiko **bi zango**

( \_\_\_\_\_ silaba)

( \_\_\_\_\_ silaba)